

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

**IKUSIZKO KULTURAK GENERO
ESTEREOTIPOEN ERAKETAN DUEN ERAGINA**

Egilea: Irati Abad Pérez

Zuzendaria: Andrea Abalia Marijuan

Leioan, 2019ko maiatzaren 29an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Helburuak	5
1.1. Orokorrak.....	5
1.2. Espezifikoak.....	5
2. Marko teorikoa	5
2.1. Gizarteratzea	5
2.2. Generoa	6
2.2.1. Genero identitatea	7
2.2.2. Genero sozializazioa	7
2.2.3. Genero estereotipazioa	8
2.3. Ikusizko hizkuntza, kultura eta generoa.....	10
2.3.1. Ikusizko hizkuntza eta kultura.....	10
2.3.2. Ikusizko kultura eta generoa	11
2.4. Ikusizko kultura genero ikuspegitik Haur Hezkuntzan.....	11
2.4.1. Ikusizko kulturaren Hezkuntza.....	11
2.4.2. Ikusizko kultura eta generoa Haur Hezkuntzan	12
2.5. Hezkidetza	14
3. Metodologia.....	15
4. Lanaren garapena.....	15
4.1. Analisia	15
4.2. Proposamena	17
5. Emaitzak eta ondorioak	18
5.1. Analisiaren emaitzak.....	18
5.2. Proposamenaren emaitzak	22
5.3. Ondorioak	25
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	26

ERANSKINAK

1. eranskina Marko teorikoaren azalpen osagarria	28
2. eranskina Jardueren azalpen eskematikoa	31
3. eranskina Ikasleen analisia.....	35
4. eranskina Irakasleen inkesten emaitzak	38
5. eranskina <i>It was never a dress</i> jardueraren emaitzak	65
6. eranskina <i>Estereotiporik gabeko pertsona</i> jardueraren emaitzak	70
7. eranskina <i>Gure jostailu-katalogoa</i> jardueraren emaitzak.....	74

IKUSIZKO KULTURAK GENERO ESTEREOTIPOEN ERAKETAN DUEN ERAGINA

Irati Abad Pérez

UPV/EHU

Lan honek ikusizko kulturak neska zein mutilen genero estereotipoen eraketan duen eragina aztertzea du helburu. Halaber, gizarte honetan ikusizko hizkuntza eta kulturak duen boterea nabarmendu nahi da, haurren munduarekiko begirada moldeatzeko gaitasun handia baitu. Jaiotzen garenetik genero estereotipoak *begietatik sartzen zaizkigu* gure izaera eta itxaropenak mugatuz. Haurrengan duten eragina ezagutzeko, marko teorikoa osatu ondoren, Barakaldon kokatuta dagoen ikastetxe¹ bateko Haur Hezkuntzako egoera aztertu da. Azkenik, eguneroko irudiek transmititzen dituzten mezuak eta baloreak identifikatzen ikasteko eta horiei ekimen artistikoen bitartez erantzun askeak eta kritikoak emateko, hezkidetzaren aldeko proposamen artistikoa burutu da.

Generoa, estereotipoak, ikusizko kultura, irudiak, hezkidetzaz

Este trabajo tiene como objetivo analizar la influencia de la cultura visual en la formación de los estereotipos de género de niños y niñas. Asimismo, se quiere destacar el poder del lenguaje y la cultura visual de esta sociedad, por su gran capacidad para moldear la mirada de los niños y niñas hacia el mundo. Desde que nacemos los estereotipos de género *nos entran por los ojos* definiendo nuestra personalidad y esperanzas. Para conocer su influencia en los niños y niñas, después de completar el marco teórico, se ha analizado la situación de Educación Infantil de un colegio situado en Baracaldo. Finalmente, se ha llevado a cabo una propuesta artística a favor de la coeducación, para así aprender a identificar los mensajes y valores que transmiten las imágenes cotidianas y poder dar respuestas libres y críticas mediante iniciativas artísticas.

Género, estereotipos, cultura visual, imágenes, coeducación

The purpose of this project is to analyse the influence of visual culture has on the configuration girls' and boys' gender stereotypes. Likewise, it also aims to highlight the power of language and visual culture of current society, due to its great capacity to shape children's vision of the world. Since we are born gender stereotypes catch our attention limiting our personality and hopes. In order to clarify the influence gender stereotypes have on children, after completing the theoretical framework, the situation of Infant Education in one school situated in Baracaldo has been examined. Finally, an artistic proposal in favour of coeducation has been performed, so as to identify the messages and values that everyday images transmit and to give free and critical answers by means of artistic initiatives.

Gender, stereotypes, visual culture, images, coeducation

¹ Ikastetxeko datuak babesteko asmoz, ez da ikastetxearen izena aipatuko.

Sarrera

Zintzoa izanda, ikasle ibilbidean zehar Heziketa Plastikoko irakasgaiak “betegarri” bezala bizi izan ditut, bertan autore ospetsuen koadroak kopiatu eta aita edo ama egunerako eskulanen bat baino ez dut egin. Haur Hezkuntza (HH) graduko ikasketetan zehar izan da irudiak interpretatzeko nire zailtasunez kontziente izan naizenean. Unibertsitate urte hauetan zehar izandako artearekin zerikusia izan duten irakasgaietan, irudiek erakusten eta transmititzen zituzten mezuak interpretatzeko gai ez nintzela konturatu nintzen. Hori guztia hausnartzera eraman ninduen, *zerk egin du huts nire eskolatze etapa guztian zehar trebetasun hori garatuta ez izateko?*

Bizi izandako esperientziak gai honekiko interesa piztu ninduen. Hortik abiatuta proposamen bat sortzearen ideia bururatu zitzaidan zeinetan ikusizko kulturaren baitan dauden irudiek paper garrantzitsua hartuko zuten, proiektuaren protagonista eta baliabide nagusia izanik. Bestalde, gizona eta emakumea hainbat eremutan maila berean ez dauden egungo gizarteari erantzutea du helburu. Beraz, genero ezberdintasun hau tratatzeko proposatzen den irtenbidea, ikusizko kulturatik lortu nahi da; ikusizko kulturak irudien bidez mezu eta balore anitz transmititzen ditu, honek gaur egun dagoen genero hierarkia mantentzen du irudiengatik erreproduzitzen diren estereotipo eta mezuak direla medio.

Ondorioz, pertsonok, idatzitako informaziorantz zein irudietarantz begirada kritikoa garatzeko gai izan behar gara, irudien esanahia deszifratzeko eta transmititzen dituzten balore eta mezuak baliagarriak diren ala ez zehazteko. Garrantzitsua ikusten dut gure ikasleei ikusten dugun guztia benetakoa ez dela ulertzen laguntzea; irudi bakoitzaren atzean konbentzitu nahi dizkiguten interes ezkutuak baitaude. Gaur egun, komunikabideen eta teknologia berrien goraldia dela eta, irudiez inguratuta gaude. Haurrak aro digitalean murgilduta hazi dira, eta baliabide teknologikoak dituzten bezala, horietatik heltzen zaien informazioa analizatzeko baliabideak izan beharko lituzkete.

Haatik, gai hau aukeratzearen justifikazioak eta hura jorratzeko erabilitako erremintak (alegia, ikusizko kultura) HHko gradua ikasten ari naizen arrazoiarekin zuzenki zerikusia dute: hezkuntzak transformazio sozialerako duen botereagatik eta ikusizko kulturak HH etapa honetan gizabanakoengan duen eragin itzelagatik asko interesatzen zaidan esparrua da. Halaber, generoaren gaia irudien bidez lantzeak genero ezberdintasun horien aurka egitea eragingo duelakoan nago, hausnartu nahi ditugun mezuak bisualak baitira.

Hori horrela, egunero jasotzen ditugun irudi bakoitzaren atzetik dagoen interes eta mezu ezkutuengatik, txikitatik nesengan eragiten den presio implizituagatik, emakumezkoengan eragina duen genero-indarkeriagatik, eta, are gehiago, hezkuntzarekin zein neska eta mutilen

etorkizunarekin konprometituta nagoenez, Gradu Amaierako Lan (GRAL) honek ikusizko kulturak genero estereotipoen eraketan duen eraginean zentratzea erabaki dut, ikusizko kulturak orain arte gizartean ezarritako genero estereotipoenganako begirada kritikoa bultzatzen lagunduko duelakoan.

1. Helburuak

1.1. Orokorrak

GRAL honen helburu nagusia HHko 5 urteko ikasleek genero estereotiporik aurkezten dituzten analizatzea da, ondoren hezkidetza eta ikusizko kultura oinarri harturik genero estereotipo eta ezberdintasunak lantzeko hobekuntza proposamen artistikoa planteatzeko.

1.2. Espezifikoak

Helburu orokorra abiapuntu izanik, helburu zehatzak hurrengoak lirarteke:

- **Ikusizko kulturak** haurren genero eraketan duen eragina aztertzea.
- Neskek zein mutilek **emakumezko eta gizonezko rolen** aurrean erakusten dituzten jarrera ohikoenak ezagutzea.
- Haurrek **norbere burua irudikatzerakoan** erabiltzen dituzten elementuak ezagutzea.
- Emakumezkoa zein gizonezkoa izateagatik gizartean erratuta dauden pentsamenduetarako konponbide bezala **hezkidetza** proposatzea.
- Genero estereotipaziorantz jotzen duten **irudien analisisa** eta ulermena sustatzea.
- **Proposamen artistikoaren** bitartez irudiek erakutsi nahi dutena ezagutzea eta munduarekiko begirada propio ezberdinak irudien bitartez espresatzea.

2. Marko teorikoa

2.1. Gizarteratzea

Espinar-Ruizen (2009) aburuz, gizarteratzea, sozializazioa ere deitua, gizabanakoak bere taldetara moldatzen eta arauak, irudiak eta baloreak bereganatzen ikasten duen ezinbesteko prozesua da. Prozesu horretan jokaerak bereganatzeaz gain, ideiak eta sinesteak asimilatzen ditu. Haurtzaroko lehenengo gizarteratzea funtsezkoa da pertsonen bizitzan, haatik, gizarteratzea etapa guztietan zehar garatzen doa. Beraz, gizabanakoa inguratzen duen guztia sozializazio-eragiletzat hartzen da. Imazek (2012) egiten duen

sailkapenaren arabera, eragilerik garrantzitsuenak familia, lagun-taldea, eskola eta komunikabideak dira.

Familia kultura guztietako eragilerik garrantzitsuena da; eremu horretan ama izan ohi da haurtzaroan familiako partaiderik garrantzizkoena. Gaur egungo gizarte modernoetan, familia eredu nuklear funtzionaletik aparte, beste motatako familiak ohikoak dira, hala nola, gurasobakarrekoak, berreraikiak, adopziozkoak eta abar. Imazen (2012) esanetan, aldaketa guzti horien gorabeherak dira haurtzaroko sozializazio-eragile nagusiak.

Lagun taldea, Imazen (2012) sailkapenaren arabera, familia ondoren doan eragilea da. Lagunak kontuan hartu beharreko eragileak dira, gaur egungo familietan guraso biek lan egiten dutenez, haurrek denbora asko pasatzen baitute haiekin. Lagun-taldeetako harremanak familiakoak baino demokratikoagoak dira, lagunak “parekoak” edo “berdinak” sentitzen baitira. Beste aldetik, gurasoak, daukaten botereagatik, gai dira seme-alabei portaera-arauak ezartzeko baina, hori ez da erraza lagun artean, testuinguru horretan, arauak eztabaidaren ondorioz alda daitezkeelako.

Eskola, izatez, talde bat ez osatu arren, lagunen arteko harremanen zentroa da. Hezkuntza eragile bakoitzak baloreak transmititzen ditu kontzienteki eta inkontzienteki. Guzti horrek ikasleek bere nortasuna garatzea ahalbidetzen du. Halaber, eskolak curriculum ofizialez gain, curriculum ezkutua helarazten du. Acasok (2009b, 55 or.) curriculum ezkutua horrela definitzen du: “conjunto de contenidos que se transmiten de forma implícita en un contexto educativo”. Edukiak ahoz, idatziz edo bisualki transmiti daitezke.

Bestaldetik, teknologia berrien garapena dela eta *komunikabideak* (hots, egunkariak, telebista, Internet eta abar) sozializazio-eragile oso garrantzitsuak bihurtu dira egungo gizartearen. Azken hamarkadetako garapen teknologikoak ikusizko komunikabide birtualen gorakada ekarri du, gizabanakoen arteko komunikazioa inoiz baino bisualagoa bilakatu. Eragile hauek era guztietako informazioa eskainiz, jarrerak eta baloreak moldatzen dituzte. Imazen (2012) ustetan, guregan duten eragina aztertzea zaila bada ere, eragina dutela ukazina da, eta zenbait kasutan oso zuzena. Egiatan, haurrengan duten eragina helduetan baino nabariagoa da, haurrek gu ez bezala, ez dute oraindik errealitatea eta irudikapena desberdintzeko baliabiderik, ikusgai dena sinesteko joera dute.

2.2. Generoa

Espainiako Errege Akademiak generoa hitza honela definitzen du: “grupo al que pertenecen los seres humanos de cada sexo, entendido este desde un punto de vista

sociocultural en lugar de exclusivamente biológico”. Definizio horretan argi ikus dezakegu generoa eta sexua ez direla gauza bera. Sexuak emakume eta gizonen arteko ezberdintasun biologikoei zein fisikoei (hala nola, kromosomak, sexu-organoak, eta abar.) erreferentzia egiten dion bitartean, generoa gizarteak emakume edo gizona izateagatik espero eta esleitzen dituen aukerak zein portaeren multzoa da. Ezberdintasun hauek genero estereotipoetan irudikatuta daude, jarraian sakonago aztertuko ditugunak.

2.2.1. Genero identitatea

Behin sexu eta genero kontzeptuak ezberdinduta, garrantzitsua ikusten dugu identitatearen kontzeptua aztertzea. Colásek (2007, 153 or.) identitatea honela ulertzen du: “Por identidad entendemos la construcción personal de un yo personal y social a través de procesos de reconocimiento e identificación de valores”. Definizio honen arabera, identitateak balore, kultura, ideien eta abarren onarpena dakarrela uler dezakegu. Horrek bultzatzen dio norbanakoari ezaugarri guzti horien aurrean bere lekua aurkitzera. Hori horrela, genero identitatea neska edo mutila jaiotzeagatik kulturalki transmititzen diren aukera, arau, balore, sinesmen, jarrera eta jokabide multzoa da. Guzti horrek sentitzeko, ulertzeko eta munduan aritzeko modua baldintzatzen du.

Alvarezek, Cremadesek eta Sainzek (2003), hurrek, hiru urterako, sexu zein genero identitatea barneratuta dutela adierazten dute; hots, haien sexua zein den identifikatzeko gai dira bai eta bere generoari ezartzen zaizkion ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzeko ere.

2.2.2. Genero sozializazioa

Sozializazio prozesuan zehar, pertsona bakoitzak bere inguruan ikusten duenaren arabera bere pertsonalitatea eta identitatea sortzen du, aldi horretan, jaiotzetik dugun sexuak paper garrantzitsua hartzen du. Castilloren (2015, 4 or.) aburuz, genero sozializazioa: “es el proceso mediante el que se aprende qué tipo de comportamientos, valores, intereses, emociones y cualidades psicológicas son consideradas socialmente adecuadas para hombres y cuáles para mujeres”.

Horren harira, Mayobrek (2002, 2 or.) azpimarratzen duen lez, gizabanako bakoitzak, gizarteak bere sexuari esleitutako ezaugarrietan ipiniko du arreta, horiek imitatzeko eta erreproduzitzeko. Horrela, bere identitatea ematen zaizkion modeloetara eta harengandik espero dena moldatuko du, talde bateko (maskulinoa edo femeninoa) kide sentituz.

2.2.3. Genero estereotipazioa

Genero estereotipoaren kontzeptua argitzeko, Govaldónek (1999) Mackiren (1973) definiziotik abiatzen da estereotipoak talde bateko kideei ezaugarri zehatzak eranstean dizkien sinesteak direla esanez. Canok (1993, 5 or.) ere, estereotipoaren esanahia ematen du: “viene a referirse a cualquier cosa que se repita sistemáticamente de la misma forma, sin variación”. Bi definizioak kontuan harturik gure interpretazioa zera da: estereotipoak zerbaiti esleitzen zaizkion aldaketarik gabeko ezaugarriak dira.

Honen harira, Govaldónek (1999) estereotipoen garrantziaz hitz egiten du:

Los estereotipos tienen una función muy importante para la socialización del individuo: facilitan la identidad social, la conciencia de pertenecer a un grupo social, ya que el aceptar e identificarse con los estereotipos dominantes en dicho grupo es una manera de permanecer integrado en él. (Govaldón, 1999, 81 or.)

Ikuspegi honek estereotipoek gizartean duten garrantzia azaleratzen du. Govaldónek (1999) arabera, estereotipoaren kontzeptuarekin batera beste bi hitz sortzen dira: *aurreiritzia* eta *diskriminazioa*. Honen ustez, hiru kontzeptu hauen arteko erlazioa oso estua da. *Aurreiritzia* talde edo jarrera bati buruzko izaera negatiboko iritzi eta sinesmen multzoa da. Iritzi eta sinesmen horiek guztiak estereotipoengatik sortuak omen dira. *Diskriminazioa*, ordea, aurreiritzi negatibo batengatik talde sozial baten menpe dagoen pertsona bati emandako berdintasunik gabeko trataera da.

Genero eta estereotipo kontzeptuak bakarka ulertuta, genero estereotipoak zer diren galderari erantzuna ematera pasa gaitezke. Horretarako, Ortiz Anzolak (2009), Argia aldizkarian argitaratutako ikerketan oinarrituko gara:

Estereotipoak, –genero-estereotipoak, hain zuzen– emakumeen eta gizonen berezko ezaugarriei buruzko uste-multzoak dira eta alderdi deskriptiboa zein preskriptiboa barneratzen dituzte. Alegia, emakumeak eta gizonak nolakoak diren eta nolakoak izan behar duten agintzen dute estereotipoek. Esaterako, gizonak emakumeak baino independenteagoak eta emakumeak gizonak baino emozionalagoak izatea espero da. Edo, pilotuak gizonak dira eta haurtzaindegiko irakasleak emakumeak dira jendearen igurikimenean arabera. (Ortiz Anzola, 2009, 44 or.)

Jatorriari dagokionez, estereotipoak aintzineko mendebaldeko kultura klasikoaren eraginez sortu ziren batik bat, beraz, gaur eguneko genero estereotipoak ez daude urrun mitologiaren arketipoetatik. Freireren (2014, 242 or.) aburuz, “Los mitos, mediante el sustrato histórico, se han magnificado como iconografías, símbolos y representaciones de gran significación y potencia visual que regeneran y cimientan el imaginario de la sociedad posmoderna”. Gizartearen eraginez, mitoetan aurkitzen ziren arketipoak eguneratzen joan dira egun ezagutzen ditugun estereotipoak sortu arte.

Bestaldetik, pertsonok noiz bereganatzen ditugun jakiteko, Matuden, Rodríguezen, Marreroren eta Carballeriaren (2002, 74 or.) hitzetan oinarrituko gara: “Prácticamente desde que nacemos, el género va a ser una fuente de diferencias (...), desde muy pequeños niños y niñas son tratados de forma distinta por los adultos y aprenden que existen una serie de expectativas diferentes según su sexo.”. Beraz, mutilek zein neskek gizonei eta emakumeei, hurrenez hurren, esleituta ikusten dituzten estereotipoak era automatikoan barneratzen dituzte. Haurrak talde bakoitzak jokatzeko dituen roletan aritzen dira, talde bateko kide sentituz. Horren harira, Beauvoirrek² (1949) hurrengo adierazten du:

No se nace mujer, se llega a serlo. Ningún destino biológico define la figura que reviste en el seno de la sociedad la hembra humana; es el conjunto de la sociedad el que elabora ese producto intermedio entre el macho y el castrado que se califica de femenino. (Simone de Beauvoir, 1949, 207 or.)

Testu honek argi adierazten digu emakumezkoa izatea gizonezkoen begiradatik sortutako eraikuntza sozial, kultural eta historikoa dela.

Halaber, Gutiérrezek (2010) rolen eraikuntzan laguntzen duen mekanismo nagusia imitazioa dela dio. Haurrek badakite ama edo aita bezala (neska edo mutila izanda) jokatzeko badute haien onarpena jasoko dutela, eta, hortaz, segurtasun afektiboa izango dutela. Sexu berdineko gurasoekin identifikatzeak, haren portaerak imitatzera eramango du, eta ez soilik harenak baizik eta bere sexu berdineko beste pertsonen portaerak ere.

Ortegak (1998) genero estereotipoen estruktura bat aurkezten digu. Honen ustez, kategoria bakoitzeko genero bakoitzeko estereotipo nagusienak hurrengoak dira:

1. *Gorputzari* dagokionean, gizonak indartsuak eta bizkorak diren aldetik, emakumeak, ahulak eta makalak dira.
2. *Gaitasun intelektualei* begira, gizonei zeregin tekniko edo mekanikoak esleitzen zaizkien bitartean, emakumeei antolamendu eta kooperazioa eskatzen dituzten zereginak atxikitzen zaizkie.
3. *Arlo afektibo eta emozionalean* gizonezkoak emozioak kontrolatzeko gaitasuna erakusten dute, emakumezkoak, aldiz, euskarri emozionaleko iturria dira.
4. *Interakzio sozialari* dagokionez, emakumezkoari komunikatzeko gaitasun handiagoak esleitzen zaizkie. Gizonezkoek, ostera, hizkuntzaren ekonomia maneiatzen dutelaren ideia ere zabalduta dago. Hala ere, interesgarria da jakitea

² Simone de Beauvoir (1908-1986), feminismoaren aitzindaria, idazle, irakasle eta filosofo frantziarra izan zen. 1949an *Bigarren Sexua* deituriko bere obrarik famatuena idatzi zuen.

mitologia grekoan, emakumeak isilik egon behar zutela, hitz egiten zuen emakumea feminitatearen aurka zihoala ulertzen baitzen (Beard, 2017).

2.3. Ikusizko hizkuntza, kultura eta generoa

2.3.1. Ikusizko hizkuntza eta kultura

Acasoren (2009a) iritziz komunikatzeko hiru modu daude: hitzez, idatziz eta bisualki. Komunikazio mota bakoitzak bere hizkuntza propioa du, ikusizko komunikazioaren lengoia, esaterako, hizkuntza bisuala da. Ikusizko hizkuntza aztertzen duen ezagutza arloa semiotika bisuala da, idatzizko hizkuntzan bezala, ikusizkoan zeinuak, ikonoak, sintaxia eta erretorika bisuala dago, eta horiek aztertu ahal dira. Hizkuntza bisuala aurreko komunikazio formekin konparatuz nahiko ezberdina da, izan ere, hitzezko eta idatzizko hizkuntzak arau espezifikoak jarraitzen dituzte, hizkuntza bisuala, ordea, norbanako bakoitzak ulertzen ikasten duen hizkuntza da. Arazoa hor dago, hizkuntza ulertzeak ez du esan nahi ondo ulertzen denik. *Baina zein ezaugarrik egiten du ikusizko hizkuntza berezia?* Acasok (2009a) ikusizko hizkuntza beste hizkuntzetatik ezberdina egiten dizkioten hiru ezaugarri aipatzen ditu: ezagutzen den hizkuntzarik zaharrena da, bat-batean irakurtzen dena eta errealtatearen antza handiagoa duena.

Behin ikusizko hizkuntza aurkeztuta, Eflandek (2005) ikusizko kultura gure existentzia moldatzen duten irudien multzoa dela baieztatzen du; gizartean ematen den eta produzitzeko zein bisualki komunikatzeko modu ezberdinak bere gain hartzen dituen kontzeptu zabala da. Adibide bezala, arte ederrak, publizitatea edo moda dugu.

Horren harira, Bermúdezek (2010, 6 or.) ikusizko kulturaren helburua honela definitzen du: “dicha cultura contiene un objetivo de comunicación masivo, emitido desde un grupo élite dirigente con intereses particulares, hacia un grupo social o asentamiento humano”, hots, talde boteretsuek ikusizko kulturaren bitartez talde sozial batengan eragitea dute helburu.

Ikusizko kulturak, banako bakoitzaren irudi bisuala (mundua ikusteko modua) sortzen du; Palaciosen (2006) ustez, irudi bisual horrek mundua ulertzeko, imajinatzeko eta besteekin harremanak izateko modua baldintzatzen du. Hori horrela, ikusizko kultura globala da, alegia, kultura bisual anitz eta ezberdinak existitzen dira, gizabanako bakoitzak berea baitu. Honek munduko toki ezberdinetan egonda, iragarki, marrazki bizidun edota irudi globalizatu berdinak ikusten ari garela esan nahi du.

2.3.2. Ikusizko kultura eta generoa

Ikusizko kulturak, beste ezertan baino gehiago, generoan du eragina. Komunikabide guztietan presente dagoen publizitatea, ikusizko kulturaren portaerak eta jarrerak aldatzeko orduan elementurik boteretsuena da. Aditu askok horren inguruan ikertu dute eta gehiengoak aspekturik nabarmenena irudi fisikoari igortzen zaiola aipatzen du, batez ere femenoari eta kulturalki eratutako prototipoei.

Vázquez (2015) esanetan, komunikabideek, orokorrean, emakumeen eta neskatasunaren irudikapen urriak eta estereotipatuak irudikatzen dituzte baita itxura fisikoaren estandar irrealak ere. Hortaz, bai neskek bai emakumeek idealizatutako irudikapen horietan oinarritzen dira haien gorputzaren auto-ebaluazioa egiterakoan. Itxura fisikoari buruzko oso adin goiztiarreko mezuekiko esposizioa marketinak, produktuak (arropa, jostailuak eta abar) saltzeagatik, egiten dituen ahaleginak dira.

Itxura fisikoa alde batera utziz, komunikabideak dira gizonezkoak emakumezkoen aurkaritzan irudikatzen arduratzen direnak. Komunikabideek gizonak bere ikasketen arabera definitzen dituzte; hauek arrakastatsuak, atletikoak, erakargarriak, eta abar izan behar dira. Emozioak erakusten dituztenei galtzaile edo ahul bezala ikusten zaie. Emakumezkoak, ordea, etxeko lanak egiteaz arduratzen direnak, gizonak baino sentimentalagoak zein makalagoak irudikatzen dira (Vázquez, 2015).

Halaber, inguratzen gaituen guztia, modu batean edo bestean, moldatzen gaitu; eragin hauetatik ihes egitea ezinezkoa bada ere, gure esku dago eguneroko irudietatik jasotzen eta barneratzen ditugun mezuak aztertzea.

2.4. Ikusizko kultura genero ikuspegitik Haur Hezkuntzan

HHri buruz ari garela jakinda, HHko curriculumak genero eta ikusizko kulturaren inguruan zer aipatzen duen ezagutzea garrantzitsua da (1. eranskina).

2.4.1. Ikusizko kulturaren Hezkuntza

Aguirrek (2006) oraingo eskoletan presente dauden arte hezkuntza irakasteko hiru ikuspegi orokorrak bereizten ditu: logozentrista, espresionista eta filolingusitikoa (1. eranskina).

- *Eredu logozentrista* objektu artistikoaren balioan zein ikasleen ematen zaien heziketan zentratzen da.
- *Eredu espresionista* subjektuan zentratzen da gehienbat eta artea pertsonaren barnean aurkitzen den adierazteko modutzat ulertzen du.

- *Eredu filolinguistikoa* bisualki arreta deitzen duen objektuaren aspektuetan oinarritzen da eta ikuste-mezuen irakurketaren kompetentzia lortzea bilatzen du.

Gure gaiari erreferentzia eginez, lehenengo bietan ez zaio ikusizko kulturari garrantzia ematen, ez da ezta lantzen ere; artelanetan oinarritzen dira batik bat. Ikusizko kultura (edozein irudi barne hartuz) eredu filolinguistikoarekin hasten da. Marínek (2003) “ikusizko kultura” deituriko azkenengo ereduak proposatzen du, baloreei, kultur aniztasunari eta gai sozialei garrantzia ematen diona. Azken eredu horrek irudiekin lantzea du helburu, ikasleen adinaren arabera material bat edo beste bat aukeratuz.

Aguirreraren (2006) sailkapenera bueltatuz, egungo eskoletan ez dago eredu bakarra, eredu guztien nahasketa ikus daiteke. Oraindik ez da artea ikusizko kulturaren bidez guztiz lantzen (Acaso, 2009b). Lan egiteko modu horiekin haurrek ez dute arterantzko begirada kritikoa garatzen, ezta sormenerako askatasuna ematen ere. Gainera, ez zaie haurrei haien produkzio askeak eta originalak sortzeko aukerarik ematen.

Halaber, gizartea bilakatzen doan heinean, entretenimendu eta aisia ere aldatzen doa. Astialdian, haurrek denbora handia ematen dute telebista edo teknologia berrien aurrean. Aparatu hauek irudi mordo eskaintzen dizkiete; ikasleek gai izan beharko lukete horien mezuak irakurtzeko, hausnartzeko, kritikatzeko eta behar izanez gero, baztertzeko. Horren haritik, Acasok (2009a, 26 or.) hurrengo dio: “la era del lenguaje visual ha pasado y es que hoy en día nos encontramos dentro de la era del hiperlenguaje visual o del hiperdesarrollo del lenguaje visual”. Ikusizko hipergarapena teknologia berrien eskutik dator, horrek irudiak ugaritzea ekarri du.

Irudi mordo hauen aurrean ez baditugu haurrak bisualki alfabetatzen (hots, ez baditugu edozein irudia irakurtzen erakusten), sentiberak eta manipulagarriak izanez haziko dira. Gainera, haurrek kontsumitzera edota modak jarraitzaera eramaten dituzten ikus-komunikabideen manipulazio botere limurtzaileagatik serioki minduta ikusiko dira.

2.4.2. Ikusizko kultura eta generoa Haur Hezkuntzan

Ikusizko kultura garrantzitsua den aldetik, hezkuntzak ere paper garrantzitsua hartzen du genero bakoitzaren berezko patroikulturalen eraikuntzan eta, ikastetxeek, aipaturiko patroien indartzaile moduan jokatzeko dute.

Paterna eta Valera (2016) Romerok eta Abriek (2008) generoa eta irakaslegoari buruz egindako ikerketan oinarritzen dira genero eta HHko irakaslegoaren formakuntzaren artean erlazio handirik ez dagoela baieztatzeko. Genero kompetentziak ez dira

nabarmetzen irakasle onak izan behar dituen konpetentzia profesional garrantzitsu bezala eta, beraz, generoa ez da sartzen ikasleriaren hasierako heziketan lehentasunezko gaien barruan. Honi gehitu behar zaio, gai hau lantzeko eskoletan ez dagoela material nahikorik. Horren harira, bi aditu hauek HHko 30 hurrekin ikerketa bat egin dute, ikusizko kulturaren bitartez zer nolako genero estereotipoak dituzten barneratuta ikusteko. Erantzun estereotipatuak eta bere esperientzietan oinarritutako argumentuek, HHko ikasleen genero ideologia tradizionala dela egiaztatzen dute.

Ikusizko kulturak genero estereotipo itzelak helarazten ditu; hala ere, ikusizko kulturaren bidez genero estereotipazio horiekin ere apur dezakegu. Hortaz, ikusizko kulturaren bitartez irakasteko erabiltzen dugun materiala generoaren ikuspuntutik egoki aukeratua izan behar da, izan ere, baliabide horiek genero eraikuntzan eragiten dute.

Horietatik gehien erabiltzen diren baliabideak **ipuinak** dira. Jiménezen (2011) aburuz, baliabide oso erabiliak dira sormena, ulermena, hizkuntza, eta abar garatzeko. Haatik, ipuinak oinarrizko hezkuntza baliabidea da horien oinarrian dauden mezu indartsuak barneratzeko; hala nola, sinboloak, balioak eta rolak. Guzti horrek hauren pertsonalitate zein identitatearen garapenean eragina du. Ipuin klasikoek, adibidez, emakumezkoari zein gizonezkoari rol zehatz batzuk atxikitzen dizkiete; hots, genero bakoitza nolakoa izan behar den (fisikoki, psikologikoki eta jarrera aldetik) adierazten dute. Esaterako, emakumeak ederrak, pasiboak eta gizonaren menpe irudikatzen dira. Gizonak guztiz kontrakoa: edertasunak ez die boterea ematen, aktiboak dira eta protagonismo guztia dute.

Ikusi bezala, ipuin hauen bidez hurrek inkontzienteki irudi zehatz bat barneratzen dute, eta, oso zaila izaten da txikitatik barneratutako irudi hori aldatzea. Ipuin horiek etorkizunean gizarteak haiengandik espero duena transmititzen die. Horren aurka, bi aukera daude: mezu desegokiak erakusten dituzten ipuinak baztertzea, edo, ipuin horiek helarazten dituzten mezuen aurrean hausnarketa kritikoa sustatzea.

Filmak eskolan ez ezik, etxean ere hurrek ikusten dituzten baliabideak dira. Halaber, ipuinak bezala, oso bitartekari eraginkorrak dira genero rolak betikotzeko, edo, filma ondo aukeratuz gero, horiekin apurtzeko. Saneleuterio eta López-García-Torres (2018, 210 or.) filmen garrantziaz mintzatzen dira “(...) la animación audiovisual es uno de los géneros culturales más atrayentes para las personas de corta edad”. Autore hauek *Disney* eta *Pixar* sortutako filma batzuen azterketa egin dute, filma berriek genero rol tradizionalekin nola apurtzen duten ikusteko. Egungo filma askok (*Brave*, esaterako)

emakumearen papera indartzea dute helburu, hori horrela, heroi maskulinoaren papera alde batera uzten ari da emakumezkoaren heroia indartzeko nahian.

Gorago aipatu bezala, badira helduei bideraturako **iragarki** sexistak, bai eta haurrei bideratutakoak ere. Gabonak heltzerakoan haurrek jostailuz beteriko albisteen aurrean aurkitzen dira. Begi bistakoa da albiste gehienek sexuen araberako bereizketa egiten dutela, “neskentzat” arrosa, “mutilentzat”, ordea, urdina. Publizitate akzio hauek mezuz beteriko irudien bidez gauzatzen dira; produktuak estereotipatzen dira eta sexu baterako edo besterako saltzen dira, “neskenak” eta “mutilenak” zeintzuk diren argi uzten.

Beste adibide argia dugu haurrek erabiltzen dituzten **jostailuekin**. Betidanik uste izan da neskentzat *Barbie* zen bitartean, mutilek *Action Manekin* jolastu behar zutela. Halabeharrez, bi pertsonaia hauek errealitatearekin zerikusia ez duten emakumezko eta gizonezkoen ereduak erakusten dute. Honekin irudiak duen boterea nabarmendu nahi da, alegia, irudiak haurrari objektu hori nola erabili behar duen erakusten dio. Beraz, horrek eragina izango du jolasa garatzen den eran, bai eta jostailu horren bidez antzezten den rolean ere.

2.5. Hezkidetza

Eskolak paper garrantzitsua du hezkuntzan, gainera, gizartea sostengatzen duen motor nagusia da. Beraz, genero berdintasunean eta bizikidetasunean oinarritutako hezkuntza-eredu berriak eskolan garatzen hasi beharra dago. Horretarako, gizartean errotuta dauden genero estereotipoak ezabatzen laguntzen duen hezkuntza eredu berri bat sortu beharko litzateke, eta horrek, hezkidetza du izena.

Hezkidetza, hezkuntza ez sexista ere deitua, neskak zein mutilak libreki gara daitezen berdintasunean hezteko defendatzen duen hezkuntza da. Hezkuntza ez sexista existitzeko gizartean esku hartzen duten eragile guztien ahalegina beharrezkoa da; hala nola, familia, eskola, komunikabideak eta abar (Gutiérrez, 2010). Kontua da egungo gizarte kapitalistari ez zaiola berdintasuna garatzea merezi, eta horri gehitu behar zaio, komunikabideek ekonomiari mesede egiten diotela. Beraz, arazo larri baten aurrean gaude: eskolan sustatu nahi diren balioak komunikabideen aldetik jasotzen ditugun mezuekin kontrajarri egiten dira.

Antzinako hezkuntza ez bezala, gaurko eskolak curriculum bateratua du neska eta mutilentzako, baina horrek ez du esan nahi berdintasunean hezitzen direnik. Zoritxarrez, oraindik, eskola mistoetan jarrera sexistak sortzen dira baita genero ezberdintasunak

indartzen dituzten ekintzak ere. Kasu askotan, ez dira berdin tratatzen neskek eta mutilak eta erabiltzen diren liburuak ez ditu emakumeak agerian jartzen. Ikasle askok eskolatik irteten dira historiako sorkuntza askok emakumeak aurkituta izan direla jakin gabe.

Ortiz Castillok (2008) baieztatzen duen moduan, HHko etapa familiarik kanpo ematen den lehen sozializazio-espazioa da. Hori horrela, hezkidetzak familiarekin batera adingoztiarretan hasia gomendatzen da.

Haatik, eskolan eta familian egoera aldatzeko ahaleginak egiten diren bitartean, aldaketarik garrantzitsuena gizarte kapitalistatik eta horrek dakartzan kontsumismoren partez ikusi behar da. Azken horiek, aldaketarik egin ezean zaila da eskola zein familiaren ahaleginekin gauzak aldatzea.

3. Metodologia

Metodologiari dagokionez, baliabide ezberdinez osatutako prozedura jarraitu dugu. Marko teorikoa jorratzen hasi gara, hainbat autorek gai honetaz zer zioten ezagutzeko. Aldi berean, *Practicum IIIa* burututako eskolako gaiarekiko egoera aztertu dugu, horretarako, behaketa, haurren aurreiritziak ezagutzeko teknika ezberdinak, inkestak eta dokumentu ofizialez baliatu gara. Eskolaren, irakasleen eta ikasleen analisiak hurrengo fasea gauzatzeko beharrezkoa izan dira; izan ere, behin ikerketa teorikoa eta eskolako egoeraren analisisa eginda, egoera hobetzeko esku-hartze artistiko bat sortu dugu.

4. Lanaren garapena

Lanaren garapena bi zati handitan banatzen da. Alde batetik, *Practicum IIIa* garatu dudana eskolaren generoaren inguruko analisisa. Analisi horretan ikasleak, irakasleak eta eskola kontuan hartu da, eta horren bidez genero estereotipoak eta ezberdintasunak identifikatu eta aztertu dira. Beste aldetik, behin analisisa eginda, estereotipazio horrekin apurtzeko eta genero berdintasuna garatzeko jarduerak ezberdinak proposatu dira, egoera eraldatzeko asmoz.

4.1. Analisisa

Analisisa, gehienbat, behaketaren bidez gauzatu da. Kasu bakar batean soilik inkestak erabili dira irakasleen iritziak ezagutzeko. Eskolako analisi orokorra egiteaz gain, irakasleen generoaren inguruko iritzia zein ikasleen aurreiritziak hartu dira kontuan. Beraz, analisisak hurrengo eskema jarraitzen du:

1. Ikasleak

- a. Genero ezberdinketa haurren estetikan
- b. Taldekatze eta jolasen aurreko jarrera
- c. Generoaren inguruko aurreiritziak

2. Irakasleak

- a. Generoaren aurreko jarrera

3. Ikastetxea

- a. Araudia

Aukeratutako **ikasleen** lagina *Practicum IIIa* burututako eskolako 5 urteko 25 haur izan dira; 15 neska eta 10 mutil.

Kasu honetan, begi-bistan dagoen genero ezberdintasun nabariena haurren motxiletan ikus daiteke. Hori horrela, estetikaren aldetik ikusten diren genero estereotipoak aztertzeko haurren motxilak erabili ditugu. Bestalde, hiru hilabete hauetan zehar denbora nahikoa izan dut ikasleak nola taldekatzen diren ikusteko. Irizpide hau behaketaren bidez aztertu da, bai jolastokian bai gela barruan. Azkenik, ikasleen generoaren inguruko aurreiritziak ezagutzeko hiru jarduera proposatu dira.

1. *Nork egiten du hau?* Ekintza batzuk ahoz aipatu eta neska, mutil edo biena izan daitekeen galdetu da. Aukeratutako ekintzak Valera eta Paternak (2016) bere ikerketan erabilitako ekintzetatik hartu dira, eta hurrengoak dira: hegazkina pilotatu, haurra zaindu, negar egin, futboleko jolastu, janaria prestatu, autoa gidatu, liburuak irakurri eta arropa lisatu.
2. *Norena da hau?* Irudi batzuk erakutsi eta neska, mutil edo biena izan daitekeen galdetu da. Aukeratutako irudiak guztiz estereotipatuak direlako hautatu izan dira.



3. *Nolakoa naiz ni?* Gorputz silueta bat emanda berauen burua irudikatzea eta noren antza (ez da beharrezkoa fisikoa izatea) izatea gustatuko litzaiekeen adieraztea.

Jarduera hauek guztiak egun bakar batean burutu dira, lehenengo biak hurrek bakarka egin dituzte, izan ere, taldeka eginez gero, ikasleen arteko influentzia somatuko lirarteke. Ikerketak ordu bat inguru iraun du. *Nolakoa naiz ni?* ariketa, ordea, ikasle guztiekin batera burutu izan da eta hamabost minutu baino ez du iraun.

Ikasleak alde batera utziz, analisi sakonagoa egiteko ezinbestekoa da **irakasleen** egoera azterzea. Horretarako eskola bereko HHko 12 irakasleak izan dira kontuan. Kasu

honetan, irakasleen 100%a emakumezkoa da. Irakasleen genero aurreko jarrera aztertzeko hurrengo inkesta sortu dugu:

1. Hezkidetzaren inguruko formakuntza jaso duzu? Zein? Non?
2. Hezitzaile bezala, berdin tratatzen dituzu neskek eta mutilak?
3. Zure programazioetan hezkidetzaren inguruko edukiak sartzen dituzu?
4. Nesken eta mutilen arteko adiskidantza ikusten duzu, ala soilik sexu bereko ikasleen artean?
5. Ikasle baten jarrera sexista baten aurrean, zein da zure jarrera?
6. Zure ustez, ikusizko kulturak genero estereotipoak garatzen laguntzen du?

Aukeratutako galderak, marko teorikoa egiterakoan erabaki dira eta irakasleen genero, ikusizko kultura eta hezkidetzaren ezaguera eta erabileraren ingurukoak izan dira.

Azkenik, **eskola** behatu dugu. Horretarako ikastetxeko dokumentu instituzionaletan genero berdintasun edo hezkidetzaren inguruan zer esaten den bilatu dugu.

4.2. Proposamena

Jarraian proposatzen den esku-hartzea aurreko analisisian antzemandako beharrekin bat dator. Ikerketa honen arabera eskolako eremu ezberdinetan oraindik badira estereotipoak eta genero ezberdintasunak; gehienbat, haurren aurreiritzietan. Hori dela eta, proposatzen diren jarduerak (2. eranskina) irudien analisiarekin hasiko dira eta genero estereotipoz beteriko irudiak eraldatzen bukatuko lirateke, estereotiporik gabeko produktuak eratuz.

Analisi-fasean, haurren aurreiritziak ezagutzeko egindako silueten azkenengo jarduerari jarraipena emateko oso ohikoa den emakumezkoa irudikatzeko sinboloarekin lan egingo dugu. Jarduera hau hurrengo galderaren emaitza da; alegia, *zer nolako jardueraren bitartez apurtu ditzakegu eskolan ikusgai dauden genero estereotipoak? **It was never a dress*** jarduerak norbanakoaren identitatea mugatu dezakeen emakumezkoaren komuna edo aldagela adierazteko sinbolo horretan, “soinekoak” beste edozein modutan janzteko aukera eskaintzen die ikasleei. Askotan itxurak izaerak eta rolak baldintzatzen ditu, hortik sortu da soinekoa eraldatzearen proposamena. Itxura (janzkera) berri batek pertsonaia desberdin bat sortzeko bidea ematen du eta horrek agian izaera, gaitasun eta asmo propioak eduki ditzake, estereotipoarekin bat ez datozenak, honen mugak gaindituz. Jarduera honen bitartez eskolan ikusgai dauden genero estereotipoak detektatu eta gainditzea lortu nahi da. Horretarako, ikasleek, irudimena erabiliz, emakumezkoaren irudia eraldatuko dute. Behin hori eginda, eskolan zehar ikusten diren emakumezkoaren sinboloak hurrek egindako lanen bidez estaliko dira. Modu horretan, proposamenean hartzen duten ikasleek gain, eskolako beste ikasleek kontzientzia hartuko dute.

Honen harira, proposatzen den bigarren jarduera **Estereotiporik gabeko pertsona** du izena. Jarduera honen bidez, gizarte kapitalista honek erakusten dizkigun emakumezkoari eta gizonezkoari erantsitako ezaugarriak, askotan, errealitatearekin bat ez datozela ulertaraztea lortu nahi da. Horrez gain, gizona eta emakumea izatearekin erlazionatzen ditugun beste aurreiritziekin apurtzea da beste helburua. Egiatan, edozein irudikapen grafikoan elementu bakoitzak (janzkera, objektuak osagarriak eta abar) esanahia du eta pertsonaiaren izaera, identitatea eta abar definitzen ditu. Hori lortzeko, irudien konparaketa eta galderen bitartez, ikasleei errealitateari buruz pentsatzera gonbidatuko zaie; ondoren, eskura emandako gorputz ezberdineko atal ezberdinekin, *collage* teknika erabiliz, norbanako berri bat osatzeko. Hortaz, estereotiporik gabeko pertsona aske bat sortu aurretik, ikusgai den elementu bakoitzaren esanahia ulertu behar da, nahasketa eta eraldaketaren bitartez pertsonaia konplexu eta aberatsagoak lortzeko.

Esku-hartzea bukatzeko proposatzen den jarduera gizona eta emakumeari esleitzen zaizkien rola aztertzean zentratzen da. *Nola bihur dezakegu sexistak diren irudiak sexistak ez diren irudietan* galdera **Gure jostailu-katalogoa** deritzon jardueraren bidez erantzuten da. Horren inguruan hausnartzeko, irudi sexistak erakutsiko zaizkie, errealitatea ez dela berdina uler dezaten. Jarraian, berdintasuna erakusten duten jostailu-katalogoen irudiak erakutsiko zaizkie, aurreko irudiekin konparazioa egiteko. Katalogo horietan azalarazten den sexismoaren inguruan hausnartu ondoren, ikasleei bere jostailu-katalogo ez-sexista egiteko proposatuko zaie.

5. Emaitzak eta ondorioak

5.1. Analisiaren emaitzak

Ikasleen estetika aztertzeko, 5 urteko haurren motxilak aztertu dira. Hurrengo irudietan ikus daitekeen moduan, mutilen motxilak (1. Irudia) gorriak eta urdinak dira gehienbat, eta bertan ageri diren marrazkiak kotxeak edo “La patrulla canina” marrazki biziduneko pertsonaiak. Nesken motxiletan (2. Irudia), ordea, kolore arrosa nagusitzen da. Kasu honetan, marrazki berdinak ikus ditzakegu baina modu feminizatu batean.




1. Irudia: 5 urteko mutilen motxilak



2. Irudia: 5 urteko nesken motxilak

Bestadetik, ohikoena sexuen arabera taldekatzea da. Gela barruan jolastean, eraikuntzetan mutilak nagusitzen diren bitartean, marrazkiak egiteko espazioan neskek baino ez dira ikusten. Bestelako jolasetan neska zein mutil kopurua antzekoa da. Jolastorduan ere, antzeko gauza ikus daiteke, mutilek jolastokiaren zatirik handiena futbolean jolasteko erabiltzen duten bitartean, neskek espazio txikiagoak okupatzen dituzte.

Ikasleen genero aurreiritziak ezagutzeko egin diren jardueren emaitzak hurrengoak dira (3. eranskina):



1. Grafikoa: Nork egiten du hau? jardueraren emaitzak 2. Grafikoa: Norena da hau? jardueraren emaitzak

Lehenengo grafikoari (1. Grafikoa) erreparatuz, oso gutxik adierazi dute hegazkina pilotatzea emakumezkoen kontua dela; berdin gertatu da arropa lisatzearekin, gehiengoak genero femeninoari esleitu dio zeregina. Aipatzekoa da gehienek haurra zaintzearena bi generoei esleitu diotela. Bigarren grafikoan (2. Grafikoa), antzeko egoera antzeman dezakegu. Poltsa eta belarritakoak emakumezkoari esleitu dizkieten bitartean, beste askok, futbol pilota eta suhiltzailearen kaskoa gizonezkoak direla aipatu dute.

Nolakoa naiz ni? jarduerako emaitzak argiak izan dira. Silueta aurkezteko galdera bat plazaratu diet: *Zer da hau?*. Bi mutilengandik jarrera sexistak jaso ditut: *“Es un chico”* eta *“Es un niño porque tiene el pelo corto”*. Gainerakoek pertsona bat dela erantzun dute, sexua aipatu gabe.

Egindako marrazkiei dagokienez, neska gehienek ile luze eta horiz marraztu dute; mutilek, ordea, ile motzarekin. Silueta forma dela eta, gehiengoak prakak margotu dituzte. Nesken marrazki bakar batean baino ez dugu soinekoa ikusten; mutil batek, Athletic futbol taldeko ekipajea jantzita irudikatu du bere burua. Ezberdintasunik nabariena marrazkia egiterakoan erabilitako koloreetan ikusten da, neska guztiek morea

eta arrosa erabili duten bitartean, mutilen marrazkietan kolore aniztasun gehiago ikus daiteke, hala nola, laranja, berdea, urdina, gorria, beltza eta abar (3. eranskina).

Silueta egiten bukatzerakoan, banaka erantzuteko galdera planteatu diet: *Noren antza izatea gustatuko litzazuke?* Jasotako erantzunak generoaren araberrakoak izan dira. Neskek emakumezkoen pertsonak aipatu dituzte; adibidez, haien andereñoa, Bella printzesa edo Edurnezuri. Mutilen erantzunik ohikoenak futbol eta superheroiekien lotutakoak izan dira; hots, Hulk, Superman edo Aritz Aduriz. Gehien harritu gaituen erantzuna mutil batena izan da, bere anaia Martinen antza izan nahi duela esan baitu.

Beraz, analisirako jarduera hauen bidez argi ikusi da neskek zein mutilek bere generoari erantzitako estereotipoak oso barneratuta dituztela, baita badirela zeregin zehatz batzuk genero zehatz bati esleituta daudenak ere.

Irakasleei pasatutako inkestaren emaitzak hurrengoak dira (4. eranskina):

1. *Hezkidetzaren inguruko formakuntza jaso duzu? Zein? Non?*
 - a. *Bai.* %16ak formakuntza jaso du. Batek, unibertsitate garaian jaso zuen formakuntza, besteak, bere aldetik artikulua irakurtzen formatu da.
 - b. *Ez.* %84ak, ez du formakuntzarik jaso; haatik, Gaitasun eta Balioetan oinarrituko Eredua (GBE)³ proiektuaren informazioaz baliatu da hezkidetzaren inguruan formatzeko.
2. *Hezitzaile bezala, berdin tratatzen dituzu neskek eta mutilak?*

Galdera honetan, %100ak baietz erantzun du. Batzuk, bere erantzuna justifikatu dute esanez: “berdin tratatzen ditut eta beraiek nahiko barneratuta daukate “sexuak” ez digula baldintzatzen” edo “...aukera berdina ematen dizkiet eta balio berdina transmititzen saiatzen naiz”.
3. *Zure programazioetan hezkidetzaren inguruko edukiak sartzen dituzu?*
 - a. *Bai.* %50ak, programazioak hezkidetzaren inguruko edukiak sartzen dituzte.
 - b. *Ez.* %50ak, izatez, ez du bere programazioan sartzen baina GBEn bidez edo egunerokotasuneko egoeretan hezkidetzan hezten saiatzen dira: “...gure egunerokoan saiatzen gara hezkidetzan heztea hiztegia kontuan hartuta, rol ezberdinak sexu bietan adieraziz...”.

³ Programa hau 2 urtetik 18 urtera arteko ikasleei bideratuta dago eta sistematikoki maila integrarean garatzeko behar duten gaitasunetan trebatzen laguntzen die. Metodologia autorregulatzailer honen helburua ikasleak bizitzako baloreetan heztea da.

4. *Nesken eta mutilen arteko adiskidantza ikusten duzu, ala soilik sexu bereko ikasleen artean?*

a. *Gehienbat, sexu bereko haurrak elkartzen dira. %65ak sexuaren arabera elkartzen direla uste du.*

b. *Gehienbat, sexu ezberdineko haurrak elkartzen dira. %35ak ohikoena neskak eta mutilak elkarrekin jolasten ikustea dela dio.*

5. *Ikasle baten jarrera sexista baten aurrean, zein da zure jarrera?*

Galdera honetan ere, guztien adostasuna egon da; izan ere, %100ak jarrera sexista baten aurrean, egoera eraldatzen saiatzen dira azalpenak, *rol-play*inak eta abar egiten. Bestalde, eredu berriak erakustea eta berdinak garela helaraztea izan dira bestelako erantzunak. Irakasle batek zera komentatu du: “Berdintasuna transmititzen saiatzen naiz, (...) baina oso zaila da askok etxean ikasten baitute”.

6. *Zure ustez, ikusizko kulturak genero estereotipoak garatzen laguntzen du?*

Azken galdera honi baietza erantzun diote andereño guztiek. Askok bere erantzuna justifikatu dute: “...es necesario boicotear campañas que los potencian para no normalizarlo” edo “...familiarengandik, eskolatik eta komunikabideetatik espektatiba handiak eskatzen zaizkie eta honek dudarik gabe markatzen du”.

Behatutako azken alderdia, **eskola** izan da. Bilaketa horretan Ikastetxeko Curriculum Proiektuarekin (ICP) egin dugu topo. ICPak genero berdintasun eta hezkidetzari nabarmentzen duela ikusten da. Gure gaiarekin bat datozen aipuak hurrengoak dira:

Baloreen heziketa atalean hurrengo zera aipatzen da:

Educamos en valores de:

- Respeto hacia sí mismos y hacia los demás, independientemente de su sexo.
- Aceptación de las diferencias de identidad y de las características de los demás evitando discriminaciones o menosprecios.
- Solidaridad, igualdad entre seres humanos.
- ... (, 2006)

Gure zehar lerroak deritzon zatian, hezkidetzak aurki ditzakegu.

En esta etapa, los niños/as tienen mucha más relación, contacto entre ellos/as que, en posteriores años, así mismo van ampliando el conocimiento que tienen sobre ellos mismos lo que favorece la igualdad de sexos:

De cara a este valor el educador tiene que tener en cuenta:

- No utilizar un lenguaje sexista.
- Ofrecerles juegos, juguetes por igual sin hacer ningún tipo de discriminación.
- Hacerles partícipes tanto a niños como a las niñas de cualquier tiempo de rol en los juegos simbólicos.
- Hablarles de igual manera, con el mismo tipo de voz, etc.
- Repartir los cargos y responsabilidades por igual. (, 2006)

5.2. Proposamenaren emaitzak

It was never a dress ariketak, irudien analisiarekin hasi da. Komunetan, aldageletan eta abarretan aurkitzen ditugun emakumezkoen zein gizonezkoen irudiak zuribeltzez aurkeztu dizkiegu eta zer ziren galderetzerakoan argi zeuzkaten erantzunak: “*un chico y una chica y los veo en el baño*”. Silueta horiei arropa janzteko eskatu diegunean, neska soinekoarekin eta mutila prakak eta kamisetarekin errepresentatu dituzte. Halaber, jarduera hau egin den egunean neska batek ere ez zeraman soinekorik. Horrek balio izan zaigu soinekoak ez direla nesken arropa bakarra haurrei ulertarazteko; neskek, mutilek bezala, praka eta kamisetaz jantzi daitezkeela. Horren harira, askotan soinekoa eramateak edozein gauza egiteko mugatzen gaituela azaldu diegu. Hori entzunda neska batek zera erantzun du: “*claro porque yo cuando llevo vestido también juego al fútbol*”.

Sinboloei buruz hitz egin eta hausnartu ostean, lan egingo genuen siluetarekin aurkeztu dizkiet. Harrera hobea izan du nesketan mutiletan baino; izan ere, mutilek ez dute ulertu zergatik emakumezkoaren irudia margotu behar zutenik haiek mutilak baziren. Irudimena erabiliz, nahi zuten pertsonaia irudikatu ahal zutela esatean, konbentzitu dira. Egindako artelanei dagokionez (5. eranskina), bi motatako irudiekin egin dugu topo. Kasualitatez, nesken irudietan *Álter ego*⁴ nabaria ikus daiteke, neska baten gorputza dela jakinda haien burua irudikatu baitute. Mutilen kasuan, aldiz, zaila egin zaie irudi horretan bere burua irudikatzea, hortaz, oso estereotipatuak diren mutilen (gehienbat, superheroiak) irudiak margotu dituzte. Margoztu ostean, eskolan zehar ikusten ziren emakumezkoen sinboloen ondoan ikasleek egindako artelanak itsatsi ditugu (3. Irudia). Modu horretan, 5 urteko haurrek ez ezik, eskola osoko ikasleek kontzientziatzeko egokia izan da.



3. Irudia: Neska batek egindakoa: Superwoman / Mutil batek egindakoa: Hulk

Estereotiporik gabeko pertsonaren ariketa, aurrekoa bezala, irudien analisiarekin hasi da. Izan ere, estereotipoei buruzko irudien adibideak planteatu ezean, haurrei “estereotipo” kontzeptua ulertzea ezinezkoa egingo litzaieke. Aukeratutako irudiak ohituta ez gauden pertsonen itxurari buruzkoak izan dira, hori horrela, irudi guztiekin

⁴ Norbanako baten bigarren pertsonalitatea edo izaera adierazteko erabiltzen den esapidea.

barre egin dute ikasleek. Argazki batzuk erakutsi badizkiegu ere, haurrengandik erantzun adierazgarrienak jaso dituztenak komentatuko dira.

Lehenengo irudian (4. Irudia), gizona edo emakumea zen ez baitzegoen oso argi, hurrek argi esan dute mutil bat dela. Zergatik galdetzerakoan “*porque tiene barba/bigote*” izan da erantzunik errepikatuena. Itxuraz gain, izaeran hausnartzeko asmoz, beste galdera bat planteatu diet: nolakoa izango da? “*a mí me da miedo*” edo “*parece malo porque mira mal*” izan dira erantzun bakarrak.

Cindy Shermanek⁵ egindako argazkian (5. Irudia), zaila egin zaie genero bakarra aukeratzea. Berez, emakumezkoen zein gizonezkoen ezaugarri estereotipatuak ditu. Hortaz, zer den galdetzerakoan neska guztiek neska dela esan dute eta, mutilek, ordea, mutila dela. Zergatik galdetzerakoan, mutilek gizon baten aurpegia duela esan dute, neskek, aldiz, ezaugarriak aipatu dituzte: ile luzea eta ezpainak margotuta.

Hitz egiteko gehien eman duen argazkia, Conchita Wursten⁶ itxura aldaketaren argazkia izan da (6. Irudia). Kasu honetan, ez dugu galderarik egin izan behar, hurren arteko debatea sortu baita. Gehiengoak, neska bat dela esan dute “*porque tiene los labios pintados y flequillo*”, baieztapen horren aurka neska bat altxatu da esanez: “*los chicos tambien pueden tener flequillo porque mi profe de baile tiene flequillo y es chico*”.



4. Irudia: Lehenengo irudia



5. Irudia: Bigarren irudia



6. Irudia: Hirugarren irudia

Behin irudien azterketa eginda, jarduera artistikoa egitera pasatu gara. Horretarako, ikasleak bi taldetan banatu ditugu eta talde bakoitzari pertsona ezberdineko aurpegi atal batzuk eskaini zaizkie. *Collage* teknika erabiliz, bi artelanak sortu dituzte (7. Irudia) (6. eranskina). Bi horiek gizaki baten antza badute ere, ez dute sexu zehatzik.



7. Irudia: Hurrek sortutako artelanak

⁵ Estatu Batuetako argazkilaria eta zinema zuzendaria.

⁶ Abeslari eta *drag queen* austialarra, 2014ko Eurovision Abesti Leiaketaren garailea.

Azken jarduera, **Gure jostailu-katalogoa** deritzona, emakumezkoen zein gizonezkoen gizarteak atxitzen dizkien roletan zentratzen da. Aurkeztutako lehenengo irudia jostailuak sexuz bereizitako bi orrialde izan da (alde batetik, urdinez eta “mutilen” jostailuak, eta, alboan, arrosa eta “nesken” jostailuak). Hasiera batean, normaltzat hartu dituzte irudiak, beraz zerbait arraroa ikusten zuten galdetu diet. Ikasle batek zera erantzun du: *“uno es de chicos y otro es de chicas”*, baieztapen horrek ikasleek arteko debatea eragin du. Entzun diren ikasleen erantzunik aipagarrienak hauek izan dira: *“pero a mi hermana también le gusta el azul”*, *“mi prima tiene eso”* (jostailuzko motorra seinalatzen), *“la moto la usa mi madre”* eta *“mi hermano juega con la panpina y encima es chico”*. Jardueraren helburua ulertzen ari zirela ikusita, guztiz kontrakoa adierazten zuten iragarki ez sexistak aurkeztu dizkiegu. Ikasleak konturatu dira iragarki horiek haien errealitatearen antza handiagoa zutela. Beraz, bi iragarki motetatik (sexista eta ez-sexista) bat aukeratzeko eskatu diet. Guztiok iragarki ez-sexistarekin hautatu dute, eta, hori ekimen artistikora pasatzeko zubia izan da. Jostailu-katalogoaren protagonistak izan nahi zuten galdetu diet, baietz erantzunda praktikarekin hasi gara.

Jarduera egiteko JolasPLAY espaziora joan gara, jarduera burutzeko jolas sinbolikorako material ugari baitago. Hurrei binaka eta hirunaka taldekatzeko eskatu dizkiegu; sexu bereko taldeak egiten ari zirela ikusita, berrantolatu behar izan ditugu. Talde bakoitzari bertako jostailu bat aukeratzeko eskatu diegu eta horrek taldekideen arteko liskarrak sortzea eragin du; izan ere, taldeak mistoak zirenez, taldekide bakoitzak bere gustuen araberrako jostailua aukeratu du. Adibidez, neska batek panpinarekin jolasteko proposatu dio bere bikoteari (mutilari) (8. Irudia). Honek, lotsatuta, panpinak nesken jostailuak direla esan du. Hori ikusita, beste mutil batek panpinarekin jolastu nahi bazuen galdetu eta berehala hautagaia atera da. Horrelako beste bi kasu egon dira, bata, mozorroekin (9. Irudia), eta bestea, sukaldearekin. Talde bakoitza bere jostailuarekin zegoela, argazki bat ateratzeko proposatu diet. Argazki horiek inprimatu eta jostailu-katalogo antzeko album bat sortu dugu (7. eranskina).



8. Irudia: Mutila eta neska panpinekin jolasean 9. Irudia: Neska eta mutila mozorrotuta

Jarduera honetan argi ikusi da neskek ez dutela “mutilen” jostailuei ezetz esaten, mutilek, berriz, “nesken” jostailuekin ez dutela jolastu nahi adierazten dute.

5.3. Ondorioak

Lehenengo ondorioa lan honen izenburuari erantzuten dio, ikusizko kulturak, nahi edo nahi ez, norbanakoaren baitan eragin handia du. Gure gaiari erreferentzia eginez, eragin hori genero estereotipoen eraketan ematen da batik bat. Ikusi dugunagatik, eragin hori handiagoa da haurrengan nagusiengan baino, izan ere, haurrek ikusizko kulturaren bitartez transmititu nahi dizkiguten mezuak aztertzeko oraindik ez dituzte erramintarik.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, irudiez inguraturik bizi gara (Acaso, 2009a). Haatik, irudiez inguraturik bizitzeak ez du esan nahi irudi horien atzean dauden mezu eta baloreak interpretatzeko gai garenik. Horiek ulertu nahi izanez gero, sozializazio prozesuan zehar alfabetatze bisualak berebiziko garrantzia du. Halaber, irudi horietan aurkitzen ditugun mezuen artean, ohikoenak, emakumezkoen eta gizonezkoen estereotipo nabariak helarazten dizkigutenak dira.

Marko teorikoan ikasitakoa errealitatearekin bat egiten zuen ikusteko ikastetxe bateko analisisia egin dugu; analisi horrek teoria eta errealitatea maila berean dagoela egiaztatu du. Haurrek, txikitatik, genero bereizketa dagoela ikasten dute, badirela kontu batzuk emakumezkoak direnak, eta beste batzuk, gizonezkoak; hortaz, halaber, talde batean ala bestean kokatzeko eskatzen die gizarteak. Haatik, jakin badakigu, gizonezkoa edo emakumezkoa izatea eraikuntza kulturala dela (Beauvoir, 1949).

Bestaldetik, irakasleei egindako inkestetan generoaren gaia, berez, ez dela lantzen ondorioztatu dugu, ez da generoa esplizituki lantzen dituzten praktikak garatzen; dena dela, generoaren inguruan gatazkak sortuz gero, gaia jorratzen da. Generoa txikitatik esplizituki ekin beharreko kontua da. Berdintasuna garatzeko neurriak lehenbailehen hartzea beharrezkoa da, normalizat hartzen diren ereduak suntsituz. Guzti horrekin, generoa ikasgela barruan lantzea beharrezkoa dela baieztatzen dugu.

Horren harira, ikusizko kultura eta generoa biltzen duen hezkidetzan oinarritutako proposamen artistikoa burutu da, zeinetan haurrek irudimena eta kreatibitatea erabiliz, egungo genero estereotipoekin apurtu duten. Proposatutako jarduerak ez dutela mundua aldatuko badakigu, eraldaketarako pausu txikiak ematea izan da ideia. Haatik, gaur egun aldaketa txikia dena etorkizunean aldaketa handi bihurtu daiteke.

Amaitzeko, esan beharra dugu, gaurko hezkuntzak hezkidetzaren alde borrokatzen badu ere, egungo gizarte kapitalistatik jasotzen ditugun mezuak ere genero berdintasunaren alde egon behar direla. Gizarteak beste bide hartzekotan, zer eginik ez dago.

Etorkizuneko proposamenei begira irakasleen hezkidetzaren inguruko formakuntza hobetzeko edo generoaren inguruko baliabide didaktiko gehiago sortzeko proposamena komenigarria izan daiteke.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Acaso, M. (2009a). *El lenguaje visual*. Barcelona: Paidós.
- Acaso, M. (2009b). *La educación artística no son manualidades: Nuevas prácticas en la enseñanza de las artes y la cultura visual*. Madrid: Los Libros de la Catarata.
- Aguirre, I. (2006). *Modelos formativos en educación artística: Imaginando nuevas presencias para las artes en educación*. 2019/05/02an berreskuratuta, <https://bitacoramaedar.files.wordpress.com/2013/08/imanol-aguirre-modelos-formativos-en-e-artc3adstica.pdf> -tik.
- Alvarez, M.C., Cremades, M.A. eta Sainz de Vicuña, P. (2003). *Coeducar para la conciliación de la vida familiar y laboral: Manual didáctico para el profesorado infantil (3-6 años)*. In López, I. (Ed.). 2019/03/12an berreskuratuta, https://www.fucomi.com/redxana/documentos/Mat_180_manual_conciliacion_infantil.pdf -tik.
- Beard, M. (2018). *Mujeres y Poder. Un manifiesto*. (Furío, S. itzulita). Barcelona: Editorial Planeta. (Originala ingelesez, 2017).
- Beauvoir, S. (2016). *El segundo sexo*. (García, J. itzulita). México: Penguin Random House Grupo Editorial. (Originala frantzesez, 1949).
- Bermúdez, J.A. (2010). Cultura visual. *Revista nodo*, 4(8), 5-30.
- Cano, J.I. (1993). *Los estereotipos sociales: el proceso de perpetuación a través de la memoria selectiva*. (Doktorego tesia). Universidad complutense de Madrid, Soziologia Fakultatea. 2019/04/05an berreskuratuta, <http://webs.ucm.es/BUCM/tesis//19911996/S/1/S1001901.pdf> -tik.
- Castillo, Y.A. (2015). *Redes, diferencias de género y Socialización. Los estereotipos de género y su trasmisión a través del proceso de socialización*. Santiago de los Caballeros: República Dominicana.
- Colás, P. (2007). La construcción de la identidad de género: Enfoques teóricos para fundamentar la investigación e intervención educativa. *Revista de Investigación Educativa*, 25(1), 151-166.
- Efland, A. (2005). Infancia y cultura visual. In Belver, M. H; Acaso, M. y Merodio, I. (Edk.), *Arte infantil y cultura visual*, (51-69). Madrid: Ediciones Eneida.
- (2006). *Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP)*. Barakaldo.

- Espinar-Ruiz, E. (2009). Infancia y Socialización: Estereotipos de género. *Revista Padres y Maestros*, (326), 17-21.
- Eusko Jaurlaritzak. (2014). *HEZIBERRI 2020. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila*. Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritzak. (2015eko abenduaren 22a). 237/2015 dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak. [237/2015 dekretua]. Vitoria-Gasteiz: EHAA. 2019/03/04an berreskuratuta, <https://www.euskadi.eus/y22bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf> -tik.
- Freire, A. (2014). Publicidad en torno al mito: el uso de figuras mitológicas como herramienta persuasiva del discurso publicitario. *Historia y Comunicación Social*, (19). 241-251.
- Govaldón, B. (1999). Los estereotipos como factor de socialización en el género. *Comunicar*, (12), 79-88.
- Gutiérrez, A.B. (2010). Educando en igualdad desde la etapa Infantil. *Innovación y experiencias educativas*, (36).
- Imaz, J.I. (2012). Hezkuntzaren Soziologia. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea. 69-75.
- Jiménez, M.P. (2011). Educando en la igualdad a través del cuento. *Innovación y experiencias educativas*, (45).
- Marín, R. (2003). *Didáctica de la educación artística para primaria*. Pearson Educación.
- Matud, M. P., Rodríguez, C., Marrero, R. eta Carballeria, M. (2002). Psicología del género: implicaciones en la vida cotidiana (19-69). Madrid: Biblioteca Nueva.
- Mayobre, P. (2002). *Marco conceptual en la socialización de género*. 2018/12/27an berreskuratuta, http://pmayobre.webs.uvigo.es/pdf/proqualitas_equal_marco_conceptual_en_la_socializacion_de_genero.pdf -tik.
- Ortega, F. (1998). Imágenes y representaciones de género. *Asparkía*, (9), 9-20.
- Ortiz Anzola, G. (2009). Género-estereotipoak: Hizkuntza, diskriminazioa eraikitzen. *ARGIA*, (2201). 2018/11/03an berreskuratuta, https://www.argia.eus/astekaria/docs/2201/pdf/p44-45_ona.pdf -tik.
- Ortiz Castillo, A. (2008). La coeducación en la Educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas*, (10).
- Palacios, A. (2006). El dibujo infantil y la influencia de la cultura visual: todas las imágenes del mundo caben en un dibujo. *Aula de infantil*, (32). 12-16.
- Paterna, C. eta Valera, L. (2016). Ideología de género en el alumnado de Educación Infantil. In Castejón, J.L. (Ed.). *Psicología y educación: Presente y futuro*. (2627-2635). ACIPE - Asociación Científica de Psicología y Educación. 2019/03/17an berreskuratuta, https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/64415/1/Psicologia-y-educacion_316.pdf -tik.
- Saneleuterio, E. eta López-García-Torres, R. (2018). Algunos personajes Disney en la formación infantil y juvenil: otro reparto de roles entre sexos es posible. *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, (13). 209-224.
- Vázquez, F. (2015). *La cultura visual en la adolescencia*. (Doktorego-tesia). Universidad de Sevilla: Hezkuntza Zientzien Fakultatea. 2018/03/28an berreskuratuta, <https://idus.us.es/xmlui/handle/11441/33258> -tik.

1. eranskina Marko teorikoaren azalpen osagarria

HAUR HEZKUNTZAKO CURRICULUMA GENERO ETA IKUSIZKO KULTURAREN ALDETIK

Haur Hezkuntzako Curriculumak genero eta ikusizko kulturaren inguruan zer esaten duen ezagutzea garrantzitsua da.

Generoaren inguruan hurrengoak irakurri daiteke:

...ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako planteamendu etiko batetik abiatuta, aukera-berdintasunerako bermea da Haur Hezkuntza, inolako diskriminaziorik egiten ez duena ezaugarri pertsonalengatik, nortasun kulturalarengatik, genero-nortasunarengatik edo sexu-joera eta -nortasunarengatik. (237/2015 dekretua, 2 or.)

Ikusizko kultura, berez, ez da Haur Hezkuntzako Curriculumean aurkitzen, hala ere, *Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena* eremuaren barne, beste kompetentzia batzuen artean, Arterako kompetentzia ageri da. Haur Hezkuntzan eremua dena, Lehen Hezkuntzan, *Arte hezkuntza* deituriko arloan bilakatzen da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ordea, hiru ikasgaietan banatzen da: *Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza, Musika eta Arte Eszenikoak eta Dantza*. Azken horretan, Ikusizko Hezkuntza aurki dezakegu.

Haatik, Haur Hezkuntzako Curriculumeko Arterako kompetentzian zentratuko gara, hori baita gure gaia:

Arterako kompetentzia

Material askotarikoak arakatu eta sormenerako erabiltzen baldin badira, kultura ezagutzeko, ulertzeko eta balioesteko bidea egiten da; era berean, artea balioesteko eta arteaz gozatzeko trebetasunak eskuratzen dira, baldin eta adierazpen-teknika oinarizkoak erabiltzeari ekiten baldin bazaio irudimena eta fantasia elikatzeke, abestiak, dantzak, mugimenduak eta adierazpenak interpretatzeko jarrera lantzen baldin bada eta bertako eta beste herrialde batzuetako adierazpen artistiko eta kulturalerako interesa eta jakin-mina pizten baldin badira (237/2015 dekretua, 26 or.)

Ikus daitekeenez, definizio hau oso zaharkituta dago, ez bakarrik ikusizko kultura agertzen ez delako, baloreak eta identitate eraketa ere ez direlako aipatzen.

Heziberri 2020an (2014) ere oinarritzko kompetentzien barne Arterako kompetentzia aurki ditzakegu. Definizio honek *Musika eta dantza*, eta, *Plastika eta ikus-entzunezko adierazpena* hartzen ditu bere barne. Guk azken horretan zentratuko gara:

5. Arterako kompetentzia:

- (...)

- **Plastika eta ikus-entzunezko adierazpena:** Plastika eta ikus-entzunezko adierazpena sormenez erabiliz komunikatzea, bai nor bere buruarekin, bai eguneroko bizitzako zenbait testuinguru eta egoeratan. Horretaz gainera, literaturari buruzko hezkuntza bat edukitzea, norbera eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko. (Eusko Jaurlaritza, 2014, 71 or.)

Nahiz eta definizioan ikusizko kultura eta hizkuntza ez agertu, jakin badakigu arte hezkuntzan bi kontzeptu hauek duten garrantzi itzela.

IKUSIZKO KULTURAREN HEZKUNTZA

Aguirrek (2006) oraingo eskoletan presente dauden arte hezkuntza irakasteko hiru ikuspegi orokorrak bereizten ditu: logozentrista, espresionista eta filolinguistikoa.

- *Eredu logozentrista* (XX. mendea). Eredu klasikoa da, errenazimendutik datorriguna, teknika eta “arte ederretan” oinarritzen da gehienbat. Ikuspegi hau objektu artistikoaren balioan zein ikasleen ematen zaien heziketan zentratzen da. Modelo honen helburuetariko bat ikasleei produktu horiek ezagutzeko eta egiteko erramintak eta ezaguera espezifikoak eskaintzea da. Hortaz, artea ideal estetikoa eratzearen helburua duen jarduera artistiko bezala ulertzen du.
- *Eredu espresionista* (bigarren munduko gerratik aurrera). Ikuspegi honek subjektuan zentratzen da gehienbat, subjektua sortzailezat hartuz. Gainera, artea pertsonaren barnean aurkitzen den adierazteko modutzat hartzen du. Kasu honetan ebaluazioa ez da posiblea ezta egokia ere, pertsonaren barne sortzen den araurik gabeko kreazioa baita. Eredu honek garrantzi gehiago jartzen du pertsonan, sortzen den objektuan baino. Modu horretan, eredu espresionistak artea ez dela ikasten baizik eta jaiotzatiko kontua dela defendatzen du.
- *Eredu filolinguistikoa* (gaur egun). Modelo hau bisualki arreta deitzen duen objektuaren aspektuetan oinarritzen da. Arteak beste hizkuntza forma direla defendatzen du, semiologia eta semiotika⁷ bisualaren diziplina berriak eraginduta. Eredu honetan ez zaio ez sortzaileari ez produktuaren itxurari hainbesteko garrantzirik ematen, irudiaren barruko estrukturan zein zeinu eta baliabide espresiboen erabileran zentratzen da. Ikuspegi honek ikuste-mezuen irakurketaren kompetentzia lortzea bilatzen du.

⁷ Zeinuak eta zeinu sistemak aztertzen dituen jakintzaren alorra.

2. eranskina **Jardueren azalpen eskematikoa**

Zer nolako jardueraren bitartez apurtu ditzakegu eskolan ikusgai dauden genero estereotipoak?

Jarduera	It was never a dress
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumezkoa sinbolizatzen duen irudia eraldatzea. - Autoestimua indartzea (fantasian eraikitako pertsonaia berriak errealitatean kokatu ditzaketela ikusten dutenean, haurrentzako erreferente berriak bihur daitezke eta haien motibazioa sendotu) - Irudien analisi kritikoa garatzea. - Ikusizko hizkuntzaren erabilera praktikan jartzea espresio askea bultzatzeko. - Talde-lana sustatzea.
Azalpena	Oso ohikoa den emakumezkoa sinbolizatzen duen irudia aztertzen hasiko ginatke. Emakume zein gizonaren sinboloak erakutsiko genizkieke eta arropaz jantzi beharko lituzkete. Emakumeari soinekoa ezabatzen, irudimena erabiliz, antzeko itxura duten beste arropa batzuk margotu beharko dituzte. Horretarako, emakumezkoaren sinboloaren siluetak emango genizkieke. Behin ikasle bakoitza bere marrazkia amaituta, eskolan zehar aurki daitezkeen emakumezkoaren sinboloen gainen ikasleek egindako emakumezkoaren irudiak itsatsiko lituzkete.
Materiala	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumezkoaren figurak zuri beltzez inprimatuta - Margoak eta errotulatzailak
Denbora	Ordu bat

Nola sor dezakegu estereotiporik gabeko “pertsona”?

Jarduera	Estereotiporik gabeko pertsona
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero estereotiporik gabeko gizabanakoa sortzea. - Irudien analisi kritikoa garatzea. - <i>Collage</i> teknika ezagutzea. - Irudimena eta kreatibitatea garatzea. - Talde-lana sustatzea.
Azalpena	<p>Gizarte kapitalista honek erakusten dizkigun oso arruntak ez diren pertsonen irudiak aztertuko genituzke (esaterako, emakumea bizarrarekin, gizona ile luzearekin); irudi horiek agerian dituzten estereotipoei buruz hitz egingo genuke. Jarraian, pertsona ezberdinen gorputz atalak emango genizkieke (begiak, ezpainak, ilea...). Irudi horietaz baliatuz, haurrek kreatibitatea erabiltzen, estereotiporik gabeko gizabanako baten irudia sortu beharko lukete <i>collage</i> baten bidez.</p>
Materiala	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumezko eta gizonezkoen gorputz atal estereotipatuak - <i>Collagea</i> egiteko materiala: artaziak, kola, kartoi mehea...
Denbora	Ordu bat

Nola bihur dezakegu sexistak diren irudiak sexistak ez diren irudietan?

Jarduera	Jostailu-katalogoaren protagonistak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Jostailu-katalogoaren bidez irakurketa eta idazketara hurbiltzea. - Katalogoaren ezaugarriak analizatzea: funtzioa eta formatua. - Irudien analisi kritikoa garatzea. - Iragarki sexistak ageri diren ala ez analizatzea. - Jostailu-katalogo propioa sortzea. - Talde-lana sustatzea.
Azalpena	<p>Jostailu-katalogoa zer den azaltzen hasiko ginateke; zertarako erabiltzen den, zer ikus dezakegun eta abar. Ondoren, katalogoaren formatua, koloreak, irudiak eta agertzen diren pertsonak aztertuko genituzke. Aldi berean, kartoi mehe handi batean iragarki sexistak eta sexistak ez direnak bereiziko genituzkeen. Irudi sexista ugari daudela ikusita, gure katalogo propioa egiteko proposatuko nieke. Hori horrela, bikoteka edo hirukoteka, talde bakoitzak eskolako jostailu bat aukeratu eta horren iragarki ez sexista proposatuko beharko luke errepresentazioaren bidez, aktoreak balira bezala. Talde bakoitzari argazkia atera eta gure katalogo propioan itsatsiko genuke. Bukaeran, beste gelakoei gure katalogoa erakutsiko genieke jostailuek ez dutela sexu zehatzik adieraziz.</p>
Materiala	<ul style="list-style-type: none"> - Jostailu-katalogoak - Gelako jostailuak - Gure katalogo propiorako materiala: kartoi meheak, gometsak, errotulatzaileak, kola...
Denbora	Ordu bat







3. eranskina **Ikasleen analisia**

Ikasleen genero aurreiritziak ezagutzeko egindako *Nork egiten du hau?* eta *Norena da hau?* jardueren emaitzak, tauletan adierazita, hurrengoak izan dira:

1. *Nork egiten du hau?*

Itemak	Neskak			Mutilak			Guztira %		
	♀	♂	Biak	♀	♂	Biak	♀	♂	Biak
Hegazkina pilotatu	1	12	2	0	9	1	%4	%84	%12
Haurra zaindu	7	1	7	2	2	6	%36	%12	%52
Negar egin	5	4	6	8	0	2	%52	%16	%32
Futbolean jolastu	3	11	1	2	7	1	%20	%68	%8
Janaria prestatu	12	1	2	7	1	2	%76	%8	%16
Autoa gidatu	2	8	5	2	6	2	%16	%56	%28
Liburuak irakurri	11	3	1	7	2	1	%72	%20	%8
Arropa lisatu	14	0	1	7	1	2	%84	%4	%12

2. *Norena da hau?*

Itemak	Neskak			Mutilak			Guztira %		
	♀	♂	Biak	♀	♂	Biak	♀	♂	Biak
	11	1	4	8	0	2	%76	%4	%25
	14	1	0	10	0	0	%96	%4	
	2	12	1	0	8	2	%8	%80	%12
	4	10	1	0	10	0	%16	%80	%4
	15	0	0	10	0	0	%100		
	8	1	6	5	3	2	%52	%16	%32

Azkenik, *Nolakoa naiz ni?* jardueran haurrek egindako marrazkien adibideak, hauek dira:



10. Irudia: Mutil eta neska baten marrazkiak



11. Irudia: Mutil eta neska baten marrazkiak



12. Irudia: Mutil eta neska baten marrazkiak

4. eranskina **Irakasleen inkesten emaitzak**

INKESTA: Generoa, Hezkidetza eta Ikusizko Kultura

ENCUESTA: Género, Coeducación y Cultura Visual

Irati Abad naiz, EHUko Haur Hezkuntzako 4. mailako ikaslea. Aurten ikastetxe honetan burutu ditut praktikak.

Nire gradu amaierako lana aurrera eraman ahal izateko *-Ikusizko kulturak genero estereotipoen eraketan duen eragina-*, genero, hezkidetza eta ikusizko kulturaren inguruko zuen esperientzia ezagutu nahi dut. Inkestak anonimoak dira eta lana egiteko baino ez dira erabiliko.

Mila esker zure parte-hartzeagatik.

Soy Irati Abad, alumna de cuarto curso de Educación Infantil de la UPV. Este año he realizado las prácticas en este colegio.

